LAUDIO ikastola.eus
31. alea
2016/11/22
2016/17 ikasturtea

# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## *Abenduaren 3an, denok Amurriora!*

*Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu euskara maite dugun guztiok. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak hitzordu berezia deitu du egun horretarako Amurrion.*

*Izan ere Laudio Ikastolan buru belarri ari gara ospakizunerako prestakuntza lanetan, xede horrekin bezperako astean eta batez ere egunaren bezperan, abenduaren 2an, ostirala, ekitaldi mordoxka prestatu ditugu etapa guztietan.*

*Amurrioko ekitaldirako eskualdeko hainbat musikariren eskutik kaleratu berri den kanta eta berarekin batera sortu den koreografia ikasleekin landuko dugu etapa guztietan, denok abenduaren 3an Amurrioko plazan dantzan eta kantuan flashmob batean bildu gaitezen.*

*Egun horretan haize-errotek, koloretako euritakoekin batera, aparteko protagonismoa izango dute ekitaldi nagusian eta gelatan ere haize-errotak prestatzeko eskulanak egingo ditugu.*

### Euskararen astea Ikastolan

*Ohi duen bezala, Argitxoren bisita espero dugu datorren astean Haur eta Lehen Hezkuntzan.*

*Abenduaren 2an berriz koadrodun zapia eta "Euskaraz bizi nahi dut" lelodun edo euskararekin loturiko kamiseta jantzita etorriko gara Ikastolara ospakizunetan parte hartzeko.*

*Sorpresa ugari, ipuin kontalariak, tailerrak, musika eta dantza izango ditugu ospakizunaren programan.*




*Haur Hezkuntzako jolastokian eta Laudio Txikiko sarreran gurasoen euskararekiko konpromiso idatziak bilduko dituen haize-errota jarriko dute ikasleek.*

### Azaroaren 25ean prestakuntza jaialdia Laudioko herriko plazan

*Basalarrina elkarteak Amurrioko ekitaldia prestatzeko jaialdia antolatu du azaroaren 25ean Laudioko Herriko plazan 17:00etatik aurrera.*

*Amurrion grabatuko den flashmobaren koreografia ikasteko ikastaroa, haize-errotak egiteko tailerra, bideo emanaldia eta gaztaina jana, besteak beste, prestatu dituzte.*

**IKASTOLAKO EGUTEGI ESKAERAK ETA "EUSKARAZ BIZI NAHI DUT" KAMISETA ESKAERAK IKASTOLAKO IDAZKARITZAN JASO DAITEZKE**

LAUDIO ikastola.eus
31. alea
2016/11/22
2016/17 ikasturtea

# DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA

## *El 3 de diciembre nos vemos en Amurrio*

*El 3 de diciembre todas las personas que amamos el euskera celebramos su Día Internacional. El Consejo del Euskara de Aiaraldea ha realizado una convocatoria comarcal para ese día en Amurrio.*

*En Laudio Ikastola ya estamos preparando la cita y con ese fin la semana previa y la víspera de la celebración, el 2 de diciembre, tendremos un completo programa de actividades.*

*Trabajaremos con el alumnado la canción que un grupo de músicos de la comarca ha creado para la ocasión así como la coreografía que la acompaña, para que el 3 de diciembre podamos reunirnos en Amurrio para cantar y bailar en un flashmob.*

*Ese día los molinillos de papel, junto con los paraguas de colores, tendrán un gran protagonismo en el acto central y estamos también preparándolos.*

### Semana del euskera en la Ikastola

*La semana que viene esperamos la visita de Argitxo en Educación Infantil y Primaria.*

*El 2 de diciembre, viernes, acudiremos a la Ikastola con pañuelo de cuadros al cuello y camisetas con el lema "Euskaraz bizi" u otros relacionados con el euskera.*

*Tendremos muchas sorpresas, cuenta cuentos, talleres, música y baile para celebrar la jornada.*




*En el patio de Ed. Infantil y en la entrada de Laudio Txiki el alumnado colocará un molinillo en el que madres y padres puedan escribir sus compromisos con el euskera.*

### El 25 de noviembre fiesta preparatoria en la Herriko Plaza de Laudio

*El 25 de noviembre, viernes, Basalarrina ha preparado una fiesta a partir de las 17:00 para preparar la cita de Amurrio.*

*Entre otras actividades el programa incluye un taller para aprender la coreografía que se bailará en el flashmob que se grabará en Amurrio, talleres para confeccionar molinillos, proyecciones de vídeo y reparto de castañas asadas.*

**LOS PEDIDOS DE CALENDARIOS DE LA IKASTOLA Y DE CAMISETAS "EUSKARAZ BIZI NAHI DUT" PUEDEN RETIRARSE EN SECRETARÍA**